

## ARAZO EGOERA

# LANDAREAK EZAGUTZEN

**ARLOA:** Nortasunaren eraikuntza eta ingurune fisiko eta sozialaren ezagueraren eremua eta nortasunaren eraikuntzaren eta komunikazioaren eta adierazpenaren eremua.

**MAILA:** Haur hezkuntzako 2. zikloa

## 2030 AGENDA KO HELBURUAK

Jarduera honekin 2030 Agendaren Garapen Iraunkorrerako Helburu hauek lantzen dira:



## TESTUINGURUA

Edonora begiratuta ere, beti aurkituko duzu landareren bat zure inguruan. Euskal Herria landare espezetan oso aberatsa da, izan ere 3500 inguru definitu dira (hauetatik 225 mehatxupean).

## ARAZOA

Belaunaldiz belaunaldi, landareekiko interesa eta ezagutza murrizten joan da gure gizartean, eta egun, kosta egiten zaigu inguruan ditugun landare arruntenei izena jartzea. 2001ean eginiko ikerketan, Wandersee eta Schussler botanikariek gauza bera ondorioztatu zuten Ameriketako Estatu Batuetan; eta izena jarri zioten gertatzen ari zenari: plant blindness, landareekiko itsutasuna.

# Naturan hezten

Euskal Herriko Unibertsitateko eta Aranzadi Zientzia Elkarteko ikerlariak egindako ikerketa batek erakusten du haurrek landareekiko interes gutxi dutela eta honek, aldi berean, landareen ezagutza-maila baxua izatea eragiten du.

## XEDEA

Ingurunearekin kontaktua izanez oinarritzko ezaguerak bereganatzea.

## HELBURUAK

- Naturan gorputza kontrolatzen trebatzea, zentzumen pertzepzioa lantzea eta inguruaren ezaugarrietara egokitzea: mugimendua, oreka, koordinazioa.
- Zentzumenen bidez natura arakatzea.
- Inguruko landare batzuk identifikatzen hastea.
- Landareekiko interesa piztea.
- Naturarekin harremanetan egotea.

## ATAZA

Proposamen honen bidez gure basoetan dauden landareetako batzuk identifikatuko ditugu eta landareen inguruan dugun begirada zabaldu eta aberasten saiatuko gara.

## JARRAIBIDEAK

### AURREZ:

- Proposamen honetan sartu aurretik, girotze bat egin dezakegu gelan. Aurre ezagutzekin konektatu eta interesa pizteko: Zenbat landare ditugu

## Naturan hezten

inguruan? zein ezagutzen ditugu? zer dakigu landareen inguruan? Galdetu dezatela etxean ea zein landare ezagutzen dituzten, aiton-amonek agian badute zer esanik... Geure landare kuttunaz hitz egin dezakegu edota ipuinen bat ekarri.

- Naturako txoko bat aukeratuko da, landare aniztasuna duen lekua izatea garrantzitsua izango da.
- Aurrez jakin behar dugu zein landare dauden bertan eta landare hauen argazki eta izenekin txarteltxoak egingo ditugu, [horrelakoak](#) izan daitezke:
- Txartelean jarri dugun landare bakoitzaren inguruan esanguratsua den informazioa jasoko dugu. Landare bakoitzarekin bi datu nahikoa izango dira: landare horren ezaugarriren bat, erabileraren bat, herriko ohitura edota berezitasunen bat. Honen prestaketarako landareen gida edota web orri hauek baliagarriak izan daitezke:
  - [Landareak \(euskalnatura.eus\)](#)
  - [GURE BASOAK - Basoko landareak](#)

### **PROPOSAMENAREN EGUNEAN:**

- Behin naturgunera iritsita, hurrei ingurua libreki esploratzeko zein jolasteko tarte emango diegu. Garrantzitsua izango da hurrek heldua bistatik ez galtzea. Hau horrela, guk ere egoteko leku egokia finkatuko dugu.
- Ekintza bideratuari hasiera emateko denok elkartu eta ekintza azalduko da.
- Haur bakoitzari (bikote edo talde txikitik ere egin daiteke) landareen txartel bana emango diegu eta inguruan landare hori bilatu beharko dute.
- Behin aurkituta, bakoitzak tokatu zaion landare hori ongi behatu eta marraztuko du (koloretan). Helburua ez da marrazki ederrak egitea, haur hauek landare horren ezaugarrietan arreta jartzea baizik: zein forma duen, testura, zein kolore dituen, berezitasunak...
- Lanak amaitu ditugunean taldean bildu eta horrela nahi duenak berari tokatu zaion landare edota eginiko marrazkia aurkeztuko die kideei. Tarte hau baliatu dezakegu aurrez prestatu dugun landareen informazioa aipatzeko.
- Amaitzeko, hurrek eginiko marrazkiak horma irudi polit batean bilduko ditugu eta ikusgarri jarriko dugu.